

# GAZTEEN EUSKARAK , EUSKARA GAZTEAK ETA HIZKUNTZA KALITATEA

*"Eske guk hola hitzeittedeu, bale?"*



Eskoriatza, 2009ko Otsailaren 4a



# Ez gara bakarrik

---

- Tolosa 1921
- Justo M. Mokoroa: "Genio y lengua"
- Fundación del Español Urgente (2008-04-12)
  - Gazteen adierazkortasun arazoen inguruko kezka
  - Hizkera berrien inguruko ikuspegi desberdinak
  - Hizkera gazteek ahozkotasuna oinarri
  - Helburua: adierazkortasuna
  - Hizkera laburtua
  - Gazte hizkeren aldakortasuna
  - Neologismoen eta lokalismoen indarra
  - Ingelesetik hartutako maileguak
- Ana María Vigara (Consumer-Eroski 08-06, 122 alea)



# Tipologiak: 10 tribu nagusiak

(*"Campus" aldizkarian 2008an argitaratua*)

---

## **1.- Euskal Herrian Erdaraz eta kito!**

- "Oso giro erdaldunetan bizi gara. Gure inguruan euskara aditzea, Donostian 30 milioi azpiko etxebizitza aurkitzea baino zailagoa da."
  - ***Hola, ktal, nos juntmos hoy a ls 7? Bsos. Te llamo luego***

## **2.- Aupa-muxux ketal?**

- "Guretzat euskara pirtzin baten antzekoa da; apaingarria: Aupa, kaixo eta muxux edo aio... Y de ahí palante? En erderas komandante!"
  - ***Iepa, ktal, nos juntmos hoy a ls 7? Mxx***

## **3.- Kutsidazu bidea XBL!!!**

- "Mandoak baino egoskorragoak gara! Barakaldon edo Tuteran bizi arren, euskaraz egin nahi dugu, kosta ala kosta. Gutxi dakigu, ez gaude ohituratuta, baina mekaguenlaletxe, guk euskaraz!"
  - ***Apa, zr moduz zaude? Nahi duzu, elkartuko gytezela gaur 7tan?***

## **4.- Euskañola nahiz eta arro nago**

- "Eske guk ezin dugu bestela hitz egin. Ñoletik Euskara goaz piskañoka-piskañoka. Eta gainera, nork ez du noizbait egin euskañolez?"
  - ***Aupa, zln? nos juntmos gro 7tn? Lasai k t llamo. Mxx***



# Tipologiak: 10 tribu nagusiak

---

## **5.- Besterik ezagutu ez eta... "Xuxen"!**

- "Eta norena da errua, gure herrian euskalkian hitz egin zuen azkena Newtonek grabitatea deskubritu baino lehen hil bazen?. Hori bai, guk erdarakadarik, ezta ordainduta ere!"
  - ***Kaixo, zer moduz? elkartuko gara gaur 7etan? Muxuak. Gero deituko***

## **6.- Euskalhirimix**

- "Gu, euskalki-trafikanteak gara. Import-export. Gure herrian euskalkirik ez dagoenez, pisukide eta parrandakideek dakizkitenetatik baliatzen gara. Gurea, mix-kalkia da"
  - ***Aupa, zln, gar 7tn elkrtuk ga? Mxuk. Geo deitukoizut***

## **7.- Eskegukolaitzedeu**

- "Guk olaitzedeu ta ola idaztedeu. Zenaizue ba, wain batuaz idazten hastea eo? Puxka bateako zaudete ba"
  - ***Aupa, zms, juntaukoalgea 7tan? Mxk. Geo deitukoizut***



# Tipologiak: 10 tribu nagusiak

---

## **8.- Erdara utikan, guk geurea!**

- "Gure hizkuntza eta gure euskalkia guk zaintzen ez badugu, nork zainduko ditu?"
  - ***Kaixo, zuz, elkartukoalgea 7tan? Mxk. Geo deituko***

## **9.- Horrela ere esan litezke bada gauzak**

- Aizue! Bada guk batuaz idazten dugu, euskaldun guztiek ulertzeko moduan eta ez dugu ulertzen zergatik jo behar den txokokerietara grazia egiteko.
  - ***Kaixo, zuz? 7tn elkartuko? Deituko dzut... oroitzn banyz, karkarkar***

## **10.- orry, Eras-mus hordago!**

- Eta honi guztiari atzerriko hizkuntzen ukitu bat emango bagenio? Tumatxa!
  - ***Hello, jauar yu? 7tan elkartuko? XX. Arribdrtxi***



# Gazte euskara kolokialaren adibideak

---

***Euskadi Gaztea – Salgai foroa – 05-07-04***

- **kaixo. zelan? bi galdera ditut.lehenengoa da badaki inork non ematen dituzten txalapartako klaseak bizkaian??nik eta nire lagunak jakin nahi dugu txalaparta jotzen,eta oraindik ez dugu lekurik aurkitu. beste galdera da: zein talde etorriko dira bilboko aste nagusian?? erantzuna badakizue,esan mesedez.muxuak.**
- **aupa, ba nik barakaldokoa naiz, ta barakaldon bertan badaukazue euskal musika eskolak, nik ezagutzen ditudan bi euskal musika eskoletan badago txalaparta ikasteko aukera. Baina herri askotan daukate euskal musika eskolak, ere. beno, ba agur!**
- **Barrie naz ta guztiz galdute. Beraz ez dodanez leku hoberik topetan hamen galdetukot. Euskadi Gaztea On line entzun gurot, baina ez dakit zer ein bez. Edonork lagundu ahal banau, hamen ipinitea mesedez. Eskerrik asko**



# Aldaketa garaiak

---

- ✓ **Elebakartasuna iragana da. Etorkizuna eleanitza izango da.**
- ✓ **Eredu sozialak aldatzen ari dira: familia eredua, baloreak, mugikortasuna...**
- ✓ **Teknologia berriei eta digitalizazioari esker, pertsona eta herrien arteko harremanak, komunikazioa eta mugimenduak biderkatu egingo dira: ikasketak, lana, aisia...**
- ✓ **Globalizazioa, munduarekiko harreman moduak aldatzen ari da.**
- ✓ **Emigrazio berriaren eraginez, sakoneko aldaketak ezagutuko ditugu.**
- ✓ **ERRONKA: hizkuntza komunitate beregain bat eraikitzea: munduari irekia, dinamikoa, autozentratua eta autoarautua; burujabea, hizkuntza aldetik ere.**



# Fenomeno berrien ondorioak

---

- ✓ **Globalizazioaren eraginez, ingelesa ere gero eta geureagoa.**
- ✓ **Lurraldetasun kontzeptuari, eskuragarritasuna erantsi behar zaio. Hizkuntzen etorkizuna beren eskuragarritasunean jokatu da, eta ez beren indar sinbolikoan.**
- ✓ **Deslokazioa: lan-jarduera guztien eskeman sartu da, baita kultur produkzioan ere.**
- ✓ **Etorkinen hizkuntza integrazioa eta hizkuntza arrotzen tratamendua mahai gainean ditugun urgentziazko gaiak dira. Gure ohiturak aldatu, egokitu eta hizkuntza aberastea da helburua.**
- ✓ **Normalizazio prozesuak arrakastaz bideratu ezean, hizkuntza dekoratiboak bihurtzeko arriskua.**
- ✓ **AURRERA BEGIRA: Euskarak duen posizio ahula orekatzeko, interbentzio politikoak eta gizartearen aldeko jarrera aktiboak beharko dira.**





# Gazte euskaldunen ezaugarri SLak

---

## a) Ezagupenari dagokionez:

- ✓ **Ez dago elebakarrik.**
- ✓ **EAEn ia guztiek ulertzen dute euskaraz.**
- ✓ **Jatorriz erdaldunak gero eta gehiago. Horietako gehienengoen ingurunea erdalduna da.**
- ✓ **Euskararen oso ezagupen maila desberdinak eta oso tipologia SL desberdinak, baina elkar ulertzeko kode komun bat dute (batua).**
- ✓ **Euskaraz egiteko adierazkortasun arazoak. Aitzitik, euskararen ezagupen maila sakon eta jaso duen multzo garrantzitsua.**
- ✓ **Belaunaldien arteko eten linguistikoa sakona da. Norberaren euskalkiaren ezagupen mugatuagoa, baina besteen ezagupen handiagoa.**



# Gazte euskaldunen ezaugarri SLak

---

## **b) Erabilerari dagokionez:**

- ✓ **Ezagupena eta erabilera zabaldu egin dira, baina dentsitatean galdu egin dugu.**
- ✓ **Haur eta gazteen erabilera indizeak hobetu egin dira.**
- ✓ **3.000 biztanletik gorako herri gutxitan da euskara gazteen kale hizkuntza nagusia.**
- ✓ **Gehienek erdaraz euskaraz baino gehiago egiten dute.**
- ✓ **Ez dago argot nazionalik. Duguna maila lokalekoa da eta erabilera mugatukoa.**

## **c) Jarrerari dagokionez:**

- ✓ **Gehiengoak hizkuntzarekiko jarrera baikorra du.**
- ✓ **Gero eta nabarmenagoa da euskararekiko jarrera erabat indiferentean dagoen gazte multzo garrantzitsua dagoela.**



# Hizkuntzaren aldaerak

---

## **a) Egituraren araberako aldaerak:**

- ✓ *Denboran zehar: mendez mende.*
- ✓ *Inguru batetik bestera: Euskalkiak...*

## **b) Erabileraren araberako aldaerak:**

- ✓ *Sozialak (taldekoak):*  
*Klase edo gizatalde bakoitzak hizkuntza mota jakin bat erabiltzen du.*  
*Soziolektoak edo erreperitorioak / Argotak.*
- ✓ *Indibidualak (egoeraren araberako hizkuntza erregistroak):*  
*Gizabanakoek leku, egoera eta adinaren arabera aldatu egiten dugu hizkuntza. Desberdin hitz egiten dugu honako aldagaien arabera: gaia, formalitate maila, komunikazio bidea..*



# Gazte hizkera eta euskara

---

## **Gazte hizkera:**

- Aldaera geografikoekin nahasten den Soziolekto bat da.
- Gazte euskaldunek, beraien artean, modu kolokialean komunikatzeko darabilten aldaera erreala eta estandarretik berezia da.
- ✓ Mende honen hasierarekin batera, eta garapen teknologikoaren eraginez, aldaera hau, ahoz nahiz idatziz erabiltzen dute.
- ✓ Egoera formaletatik kanpo, hau da askok darabilen aldaera nagusia.



# Eragiten duten faktoreak

---

Gazte hizkeren ugaritasunean eragiten duten faktoreak:

- Norberaren euskararen ezagupen maila
- Familiaren eta ingurunearen ezagupen maila
- Ezagutzen den/diren euskara motak: batua, etxeko/herriko euskalkia(k)
- Bizi den ingurunearen errealitate soziolinguistikoa.
- Harreman sarearen ezaugarri soziolinguistikoak
- Norberaren eta taldearen identitate eta ideologia linguistikoak

# Erregistroa aukeratzeko aldagaiak



---

- ✓ Mintzakideen ezagupena eta tipologia SL
- ✓ Komunikaziorako erabiltzen den harreman bidea
  - Ahozkoa edo idatzizkoa
  - Aurrez aurrekoa ala bitartekoren baten bidezkoa
- ✓ Harreman mota
  - Mintzakide ezaguna ala ezezaguna
  - Harreman formala edo informala
- ✓ Gai edo euskarri mota
  - Gai formala edo informala
  - Gune formala edo informala

# Gazte euskara kolokialaren ezaugarriak

- ✓ Joera berria da. Kode idatzia ahozko koderara gerturatu da.
- ✓ Transgresio nahia nabarmena da.
- ✓ Talde-nortasun baten ezaugarri agerikoa da.
- ✓ Adierazkortasuna eta komunikazioa lehenesten dira.
- ✓ Euskara nahasia da:
  - Euskara eta erdara(k) nahasten dituzte.
  - Euskarazko zatietan batua eta euskalkiak.
  - Herri bakoitzean, kontsensuzko forma berriak sortu dituzte.
  - Ingurune Slak markatzen du, osagai bakoitzaren proportzioa.
- ✓ Egoera SL jakin baten ondorio da.
  - Euskara honetara, batzuk jatorrago batetik heldu dira eta besteak erdaratik.
  - E.H. osoa hartzen duen fenomeno da.
  - Helburu nagusia, komunikazioaren adierazkortasunean irabaztea da.



# Herri euskaldun batzuetako gazteen hizkera

---

- ✓ **Euskal Herrian orokortu diren hizkuntza egituren erabilera desegokiak.**
- ✓ **Aldaketa sakonak aditzaren paradigmaman (herri bakoitzean desberdinak).**
- ✓ **Erdararen interferentzia etengabeak (batzuk orokorrak eta besteak lokalak)**
- ✓ **Lexiko aldaketa.**
- ✓ **Tradiziorik gabeko euskararen erabilera modu berriak edo/eta ez zuzenak. Batzuk "argot" edo hizkera berri baten abiapuntua izan daitezke.**





# Interferentziak erabiltzeko arrazoiak

---

- ✓ **Adierazkortasuna lortzeko gaitasun linguistikorik eza.**
- ✓ **Euskarara heltzeko bidetzat hartzea.**
- ✓ **Besteen hizkerarekin bat egiteko modua.**
- ✓ **Erreferentzia eta irudi sinboliko gehienak erdaraz egotea**
- ✓ **Lokuzioak eta esaera zaharrak ez dituzte ezagutzen.**



# Interferentzien erabilera

---

- ✓ **Agurrak.**
- ✓ **Esaldi amaierak.**
- ✓ **Lexikoa.**
- ✓ **Lokailuak.**
- ✓ **Egiturak.**
- ✓ **Tartekaturko esaldiak**



# Euskalkiak erabiltzeko arrazoiak

---

- ✓ **Hurbiltasuna.**
- ✓ **Kolokialtasuna.**
- ✓ **Benetakotasuna.**
- ✓ **Intimitatea.**
- ✓ **Jatortasuna.**



# Arriskuak

---

- ✓ **Fosilizazioa:** Hizkuntzaren barne garapen-indarrak ez baliatzea eta sustatzea.
  
- ✓ **Degradazioa eta hibridazioa:** sistematikoki adierazkortasun bila, hizkuntza menperatzailerara jotzea.
  
- ✓ **Txokokeria:**
  - Bereizgarriak neurriz kanpo erabiltzea.
  - Lokalismoen aldeko joera. Isolamendu linguistikoa.
  
- ✓ **Jatorrismoa edo folkloreakeria:** erregistroak ez bereiztu eta beti bera erabiltzea. Erabilera formaletan, erregistro informala.
  
- ✓ **Urrunketa:** Hiperzuzentasunak, komunikazioa zailtzen du eta entzulearekiko distantzia sorrarazten du kasu askotan.



# Hausnarketarako a2a.

---

**Euskaldungoaren egitura sakonki astintzen eta eraldatzen duen prozesu global baten aurrean gaude eta hizkuntzaren kalitatearen inguruko hausnarketak prozesu horixe izan behar du abiapuntu, eta faktore asko hartu aintzat.**



# Kantitatetik kalitatera

---

- ✓ **Hizkuntza kalitatearen inguruko kezka ez da gurea bakarrik, eta ez da oraingoa bakarrik.**
- ✓ **Euskararentzat alor, eskualde eta hiztun berriak irabaztea izan da orain arteko kezka nagusia.**
- ✓ **Gure hizkuntzaren hedapena segurtatzera bideratu dira orain arte hizkuntza politikak eta euskaltzaleen ahalegina.**
- ✓ **Azken urteotan, beste bat gehitu zaio horri: euskararen kalitatearena.**
- ✓ **Egoera minoritarioan dagoen euskararen hedapenak berekin dakar hizkuntzaren "kalitate"aren galera.**



# Hizkuntzaren kalitatea

---

- ✓ **Euskara zuzena:** Euskaltzaindiaren arauen arabera.
- ✓ **Euskara jatorra:** Euskararen senaren edo usadioaren arabera.
- ✓ **Euskara egokia:** Bere xederakoa egokia dena. Komunikazio egoera bakoitzak bere egokitasuna behar du.
- ✓ **Euskara ona:** aldi berean, egokia, jatorra eta zuzena den euskara.
- ✓ **Proposamena:** lehenetsua (hezkuntzan eta hedabideetan batez ere) arau komunikatiboak (egokitasunak) izan behar du eta ez arau gramatikalak (zuzentasunak).



# Gabeziak eta lehentasunak

---

- ✓ **Hizkuntzaren kalitatearen inguruko gabezia nagusiak:**
  - **Hizkuntzaren ezagupen maila eskasa.**
  - **Hizkuntzaren berezko baliabide aberatsen ezagupen falta.**
  - **Hizkuntza sorkuntzarik eza: argota, esamolde berriak...**
  
- ✓ **Orain arteko ahaleginetan, oro har, zuzentasunari eman izan zio lehentasuna, eta hurrena, jatortasunari.**
  
- ✓ **Gure ustez, euskararen egoera dela medio, egokitasunari eman behar zaio lehentasuna, jakinik, komunikazio egoera bakoitzak bere egokitasun propioa duela.**





# Kalitatearen Oinarrizko baldintzak

---

- ✓ **Hizkuntzaren kalitateaz hitz egitea hizkuntzaren normalizazioaz hitz egitea da. Gutxieneko normalizazioak honako hiru ezaugarriok eskatzen ditu:**
  - Euskarak lege-babesa izatea Euskal Herri osoan.
  - Euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzea.
  - Euskararen aldeko jarrera zibiko-politikoa.
  
- ✓ **Bestalde, erabilera da hizkuntza ikasteko modurik egokiena eta ezagupena finkatu eta sozializatzeko berme nagusiena.**
  
- ✓ **Beraz, erabilera esparruak irabaztea ezinbestekoa da hizkuntzaren kalitatean eta adierazkortasunean aurrera egiteko.**

# Gazte hizkeraren eta egokitasunaren garrantzia

- ✓ Gazte hizkera garatzea eta hizkuntzaren irakaskuntza egokitasunaren ikuspegitik lantzea guztiz garrantzitsuak dira:
  - Hizkuntzaren balio instrumentala eta erabilgarritasuna hobetzeko, eta hizkuntza funtzio guztietarako gaitzeko.
  - Hizkuntzaren ezagupena sakontzeko.
  - Hizkuntzarekiko motibazioa lantzeko. Euskararekiko lokarri emozionalak indartzeko.
  - Erdararekiko menpekotasuna murrizteko.
  - Erabilera esparruak eta erreferentzia mundu partekatuak sortzeko.



# Gazte hizkera sortzeko bideak

---

- ✓ Euskarriak:
  - Ondare linguistiko osoa, estandar batua, euskalkiak, literatur tradizioa, ahozko tradizioa, gaur egungo erreferentzia sinbolikoak.
  - Sorkuntza mekanismoak eta horretarako baldintzak.
  
- ✓ Bideak:
  - Erabilera dentsitatea areagotzea. Haur eta gazteei zuzenduriko zerbitzu eta produktu euskaldunen eskaintza ugaltzea eta bermatzea.
  - Imaginario partekatuak eta erreferentzia komunak sortu eta indartzea:
    - Komunikabide nazionalen garrantzia gazte hizkera sortu eta hedatzeko.
    - Hizkuntza komunitatea harreman sare bat da.
    - Kultura oro erreferentzia sistema bat da.
    - Ikuspegi nazionala eta bi euskalki sortzeko arriskua.
  - Politika instituzionalak eta gazteen dinamika sozialak eragitea.



# Gaur egungo eragozpenak

---

- ✓ **Egoera diglosikoa eta hizkuntzen arteko ukipena: erdaren nagusitasun osoa**
- ✓ **Erabiltzen den erregistroa ez ongi menperatzea (euskalkia, batua...)**
- ✓ **Euskararen erabilera indize baxuak**
- ✓ **Euskal komunitatearen aldaketak: barne aniztasuna eta hizkuntza baliabideen ezagupen eskasa**



# Eztabaidagaiak

---

- ✓ **Nola lortu gipuzkoarrengan jarrera "ekolinguistikoagoa"?**
- ✓ **Nola indartu beste euskalkien hiztunen auto-estima, ulergarritasuna bermatuz?**
- ✓ **Nondik jo behar genuke, bai maila lokalean, bai maila nazionalean, interferentzien erabilera murrizteko eta gure hizkuntza baliabideen erabilera indartzeko?**
- ✓ **Zuen inguruko errealitatetik abiatuta, nola baloratzen dituzue hizkuntzen nahasketa egoerak?**
- ✓ **Zein hizkuntza eredu irensten dituzue "normal" eta zein zaizkizue "liseriezinak"?**
- ✓ **Irakasleen gaitasunaren gaia: 2 erregistro menperatzea posible al da?**



# Eztabaidagaiak

---

- ✓ **Zein da euskalkien lekua hedabideetan? Zein dira eredurik interesgarrienak eta zeintzuk alboratu beharrekoak?**
- ✓ **Nola eragin daiteke gazteen hizkeran? Proposamenik?**
- ✓ **Hizkerak berdindu egingo omen dira. Ados?**
- ✓ **Zer gertatuko da aldaera geografikoekin, euskalkiekin?**
- ✓ **Euskalkien bereizketa/nahasketaren inguruan iritzi desberdinak azaldu dira. Zuk zer diozu?**
- ✓ **Euskara ez omen da modernotasunarekin lotzen, erreferentziak falta dira eta gaztelerazko kultura oso errotuta dago. Ados?**
- ✓ **Gazte askoren euskararekiko lehen urratsa euskañola omen da. Hala ikusten?**



# Kultur kontsumoaz

---

## **1.- Euskarazko kultur produktuak kontsumitzeko, euskaraz jakitea komeni da, baina ez da nahikoa**

- ✓ Euskarazko KULTUR produktuak kontsumitzera iristeko:
  - Aurrena euskaraz jakin behar da. Salbuespena, guraso erdaldun eta atzerritar euskaltzaleak.
  - Gainera, euskaldun horiek euskal mundura hurbildu behar dira.
  - Orduan has daitezke euskarazko kultur produktuak kontsumitzen.
  
- ✓ Izan ere, euskarazko kultur kontsumoaren bilakaera, hizkuntz normalizazio prozesuaren bilakaeraren araberakoa izango da, eta alderantziz.



# Kultur kontsumoaz

---

## 2.- Euskarazko kultur kontsumoaren hedapena eta garapena 3 ardatzen inguruan burutu beharko da:

- ✓ **Derrigorrezkotasuna:**  
Euskarazko kultur produkzioak lege-babesa behar du. Euskararen presentzia, eskaintza eta erabilera bermatu egin behar dira; baita kultur alorrean ere.
- ✓ **Eskuragarritasuna:**  
Lege-babesak eta derrigorrezkotasunak, ordea, mugak dituzte eta izan behar dituzte. Horregatik, hil ala bizikoa izango da, euskarazko DVDak, aldizkariak, liburuak, jokoak, etab. eskuragarri izan daitezen lortzea; merkatuak erdarazkoen edo ingelesezkoen eskuragarritasuna bermatzen baitu.
- ✓ **Erakargarritasuna:**  
Gainera, produktu horiek erabiliak, kontsumituak edo/eta erosiak izango badira, gustukoak, erabilgarriak edo interesgarriak izan beharko dute





# Kultur kontsumoaz

---

**3.- Merkatua zabaldu beharra dago, horretarako produktu egokiak ekoiztuz.**

- ✓ **Abangoardiako produktuak behar baditugu ere, alegia, iparra markatuko duten liburuak edo filmak... batez ere jendeak kontsumituko dituen produktuak behar ditugu: ikusle, irakurle eta entzule berriak lortu behar ditugu.**
- ✓ **Patxi Zubizarretaren oharra aurreko iritziari buruz: *“Irudipena dut ez dugula publikoa behar bezainbeste aintzat hartzen, eta nago sortzeko orduan horri ere kontu gehiago egin behar geniokeela. Oso iritzi errealista da Amonarrizena, -eskerrik asko-, pragmatikoegia agian hain zaharkituta dagoen sortzaile jendearentzat, baina hitzok inondik ere koitoarekin zerikusirik handiagoa dute masturbazioarekin baino eta zer pentsa ematen dute.”***



# Kultur kontsumoaz

---

- 4.- Euskal Herriko eta euskaldunen kultur joerei buruzko datuak behar ditugu.**
- ✓ **Kontsumo-joerak asko ari dira aldatzen, eta proiektu berriei ekiteko eta ditugunak sendotzeko, gure merkatua –erreala eta potentziala- ondo ezagutu behar ditugu.**
- ✓ **Marketing hausnarketa eta Merkatu-ikerketak ezinbestekoak dira. Prozesu zientifikoak erabili behar ditugu, jendeari zerk eragiten dion ilusioa eta zer zaion interesgarria jakin ahal izateko.**



# Kultur kontsumoaz

---

## **5.- Hizkuntza bera, oztopo eta uxatzailea da askorentzat.**

- ✓ **Euskarak edo euskal eskaintzak berak erretxazoa sortzen du euskaldun askorengan: arrazoi linguistikoengatik batzuetan, ideologikoengatik besteetan.**
- ✓ **Euskarazko produktu asko astunak omen dira, baina askorentzat astuna, ez al da euskara bera? "Hizkuntza kalitatea"ri buruzko txostenean jorratu genuen gai hau. Zuzentasun parametroen aldean egokitasuna eta komunikazioa lehenetsi beharko genituzke gure eskaintzan.**
- ✓ **Euskararen eskaintza ideologikoa ere (hitzaren zentzurik zabalenean) zabaltzea lortu beharko litzateke.**



# Kultur kontsumoaz

---

**6.- Euskarazko kultur produktu gehienak ez dira existitzen biztanleriaren gehiengoarentzat.**

- ✓ **Euskarazko produktu gehienak "ikusezinak" dira erdal medio gehienetan. Edo ez dira aipatu ere egiten edo, "bitxikeria folkloriko" edo gertaera marjinal gisa tratatzen dira askotan. ETB1 non eta nola aipatzen den jarraitzea oso esanguratsua da. Salbuespenak salbuespen, euskal mundutik urrunegi sumatzen ditugu erdaraz ari diren hedabide gehienak, ETB2 barne.**



# Kultur kontsumoaz

---

## **7.- Internet euskarazko edukiz elikatzea estrategikoa da**

- ✓ **Internet euskarazko edukiz elikatzeko estrategiak indartu behar dira. Gainera, Internet oso bitarteko egokia izan daiteke, hedabide estandarren bidez euskaraz zabaldu ezin daitezkeen eduki espezializatu eta minoritarioak zabaltzeko.**



# Kultur kontsumoaz

---

- 8.- Euskarazko kultur kontsumoa parametro erregionalistetan gertatzen da, ez parametro nazionaletan.**
- ✓ **Mugak, euskarazko kultur kontsumoa ere banatu egiten du. Iparraldean ekoizturiko euskarazko kultur produkzioak (eta baita Nafarroakoak ere, neurri handi batean) nekez gainditzen dute muga.**
  - ✓ **Hegoaldeak, arreta berezia eskaini beharko lioke Iparraldeari. Hedabideek (EITBk bereziki) asko dezakete hizkuntza komunitatea trinkotze eta bertako galera etengabea galgatze aldera, iparraldeko profesionalen eta biztanleen presentzia sustatuz eta normalizatuz.**



# Kultur kontsumoaz

---

**9.- Gure 7 bekatu nagusiak aitortu eta baztertu behar ditugu:**

- ✓ **Alegia: biktimismoa, ezkortasun kronikoa, baikortasun alferra, akritizismoa, inmobilismo subentzionatua, dirigismoa eta inbidia.**



# Kultur kontsumoaz

---

**10.- Joxerra Garziari gaur Ordizian emango duen hitzaldiaren izenburua lapurtuta: "Ze kristo, arraio, demontre egin behar dugu euskararekin? Eta euskal kulturarekin?"**

✓ **Euskal kultura ez dago agenda politikoaren lehentasunen artean. Ezta euskara bera ere. Azken hamarkada hauetan euskara arrisku larrian egotetik biziraupena segurtatu samartua izatera pasa gara. Baina hori al da euskararentzat nahi duguna?**

✓ **Diskurtso teorikoetan, programa politikoetan eta deklarazio publikoetan entzuten duguna eta egunero ikusten duguna ez datoz bat. Baina galdera hor dago, eta batez ere, administrazioak, eta eragile sozio-politiko-ekonomikoek erantzun behar dute: "Zein da herri honetan eta bere kultur proiektuan euskarak bete behar duen lekua?"**

**11.- Eta esportatu, noski.**